

ETIKA PUBLIKORAKO BATZORDEA

GAIA: 5/2016

ERABAKIA, (...)K LANGILEAK HAUTATZEKO DEITU DUEN PROZESUAN PARTE HARTZEA EGOKIA DEN JAKITEKO, EUSKO JAURLARITZAKO (...)KO ZUZENDARI (...) ANDREAK EGIN DUEN GALDERAREN INGURUKOA.

1.- 2016ko martxoaren 17an, interesdunak, Eusko Jaurlaritzako (...)ko zuzendariak, Etika Publikorako Batzordeari (EPB) galdetu zion ea etikoki bidezkoa den (...)k (...) teknikarien lan-poltsa eratzeko 2016ko martxoaren 4an deitu zuen hautaketa-prozesuan berak parte hartzea. Hau galdetu zuen, zehatz-mehatz: ea aipatutako prozesuetan parte hartuko balu nolabait urratu egingo lukeen Gobernu Kontseiluak 2013ko maiatzaren 28ko Erabakiaren bidez onartu zuen Etika eta Jokabide Kodea (EJK).

2.- EJK-k, 2016ko apirilaren 28an Donostian bilduta, iritzi hau eman zuen aipatutako galderaren inguruan:

I. AURREKARIAK

1.- Eusko Jaurlaritzak etika publikoaren inguruan eta zehazki bere kideen eta Autonomia Erkidegoaren sektore publikoa osatzen duten kargu politikodunen jardun etikoaren inguruan duen kezka hainbat dokumentu eta erabakitan dago adierazita. Horien artean, nabarmentzekoa da 2013ko maiatzaren 28an onartutako Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta Instituzionaleko kargu publikodunen eta behin-behineko langileen Etika eta Jokabide Kodea (EJK); dokumentu hori, hain zuzen ere, "politikaren zentzu etikoa berreskuratzeko eta herritarrek instituzioetan izan beharreko konfiantza berrezartzeko" asmoarekin sortu zen.

2.- Horren ondoren, Eusko Legebiltzarrak Kargu publikodunen jokabide-kodea eta haien interes-gatazkak arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legea (JKIGL) onartu zuen. Lege horrek EJKren eremu subjektiboa zabaltzen du, betiere Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko kargu politikodun, behin-behineko langile eta zuzendaritzako langile guztiei eragiteko bokazio nabariarekin.

Lege horren II. kapituluak "kargu publikodunen jokabidearen" inguruko hainbat printzipio orokor biltzen ditu; printzipio horiek, hain zuzen ere, osotasunaren eta gardentasunaren inguruan antolatzen dira (5. artikulua), eta hiru eremutan islatzen: banakako jokabidea (6. artikulua), kalitate instituzionala (7. artikulua) eta herritarrekiko harremana (8. artikulua).

3.- Printzipio horien eta EJKn bildutako balio, printzipio eta jokabideen jarraipena eta ebaluazioa egiteko, Etika Publikorako Batzorde bat eratzea aurreikusi zen EJKren 16.3 puntuan,

besteak beste "Etika eta Jokabide Kodea aplikatzearen inguruan kargu publikodunen eta parekatuen kontsultei zein beste edozein instantziak egindako kontsultei irtenbidea" emateko.

II.- ETIKA PUBLIKORAKO BATZORDEAK AZTERTU BEHARREKO GAIA

1.- (...)k teknikarien lan-poltsa bat eratzeko hautaketa-prozesuaren deialdia egin zuen, eta interesdunak kontsulta egin zion EPB honi, deialdiko prozesuan parte hartuko balu EJK nolabait urratuko lukeen jakiteko irizpena eman dezan, izan ere Eusko Jaurlaritzako kargu publikodun izendatu zutenean atxiki baitzitzaion bera EJKri.

2.- Kontsulta 2016ko martxoaren 17an egin zenez eta aipatutako prozesuan izena emateko epea 2016ko martxoaren 21ean bukatu, pentsatu beharra daukagu EPB honetara irizpen eske jo zuenerako erregistratuta egongo zela hautaketa-probetan parte hartu ahal izateko eskabidea edo, bestela, erregistratzeaz zegoela. Hortaz, galdera ez da ea zilegi den eskabidea aurkeztea, baizik eta ea zilegi den eskabide horrek hautaketa-prozesuetan parte hartzeko ematen dion eskubideaz baliatzea.

Nolanahi ere, ondorengo lerroetan prozesuan parte hartzeari buruzko gogoetak azalduko ditugu, baina gogoeta horiek berdin-berdin aplika dakizkieke eskabide-orria aurkeztu izanari ere.

III.- GOGOETAK

1.- Interesdunaren idazkiak interesdunak betetzen duen karguaren eta arlo pribatuan gauzatu nahi duen jardueraren artean egon litekeen bateraezintasun edo interes-gatazka bat baino ez digu planteatzen; izan ere, administrazio publikoek edo haien mendeko erakundeek langileak hautatzeko deitutako prozesu batean parte hartu nahi baitu Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko kargu publikodun edo parekatua izanik. Baina, berez, 2/2015 Erabakian esan genuen bezala –eta erabaki hura erabiliko dugu kasu hau ebazteko oinarri gisa–, interesdunaren kontsulta askoz ere gai konplexuagoa da, jokaera indibidualari nahiz kalitate instituzionalari dagozkien printzipio eta balioak ukitzen baititu era batera edo bestera.

2.- Edonola ere, agerikoa da kontsultagileak EPBra bidalitako idazkian identifikatutako balio eta printzipioek –eredugarritasuna, bikaintasuna eta, interes-gatazka egon litekeenez, integritatea– zeresan handia izan behar dutela aztergai dugun kasu hau ebazteko garaian, ez baita karguari dagozkion zereginak betetzetik eratorritako zalantza etiko bat, karguarekin zuzenean lotuta dagoena, eta, hauxe baita auzitan dagoena: interesdunak, karguan dagoen bitartean, ea egin dezakeen modu zeharo pribatuan gauzatuko lukeen jarduera bat.

3.- Kargu publiko bat betetzea eta administrazio publiko batek deitutako hautaketa-prozesu batean parte hartzea bateragarriak izateko aukerari dagokionez –karguduna txertatuta dagoen

organigramakoa izan daiteke administrazio hori edo beste bat, kasu honetan gertatzen den bezala, JKIGL-k eta EJK-k ez dute espresuki ezer ezartzen. Hala ere, balio eta printzipioak eskaintzen dituzte bai batak eta bai besteak, eta jokabide etikorako jarraibide baliagarriak atera daitezke haietatik, aztertzen ari garen galderari erantzuteko.

4.- EJKn, "kudeaketari lotutako erantzukizunaren" printzipiotik abiatzen dira jarduera pribatuak garatzeko garaian kargu publikodunei dagozkien bateraezintasun-jarraibideak, eta horren eremuan kokatzen da 14. puntuko 2. paragrafoan jasotzen den "arduraldi osoa eta eskusiboa"ren oinarritzko araua. Horren arabera, "kargu publiko bat betetzen dutenek arduraldi osoa eta eskusiboa eman behar diote dagozkien funtzioak betetzeari, aplikatu beharreko legedian jasotakoaren arabera". Legedi aplikagarria bildu beharrik JKIGLren III. kapitulura eramaten gaitu, hain zuzen ere bertan ezartzen baita "kargu publikodunen bateraezintasun-araubidea".

5.- JKIGLren III. kapitulua adierazpen orokor batekin hasten da, hain zuzen ere honako hau adieraziz: "Kargu publikodunek [...] arduraldi eskusiboz beteko dituzte eginkizunak". Baina 12.1 artikulua urrats bat gehiago ematen du, eta funtsean ondorio logiko bat besterik ez den debeku hertsia bat gehitzen dio oinarritzko arau horri: "ezin izango dute aldi berean, ez berek ezta ordezen edo ahalordetze bidez ere, ez ein postu, kargu, ordezkapen, lanbide, merkataritza-jarduera, jarduera profesional edo industria-jardueratan aritu, publikoetan zein pribatuetan, norberaren kontura edo inoren kontura izan" (12.1 art.).

6.- Alabaina, nahikoa da transkribatutako arauak kargu publiko bat betetzearekin bateraezintzat jotzen dituen jardueren zerrendaren berrikuspen labur bat egitea egiaztatzeko izaera profesionala edo merkataritza- edo industria-arloko izaera duten lanbideez ari dela eta ez, kasu honetan dagokion bezala, "berdintasun-baldintzetan eta legeek ezartzen dituzten betekizunekin, funtzio eta kargu publikoetara heltzeko" (Konstituzioaren 23.2 art.) oinarritzko eskubideen eremuko jardunez.

7.- Bai EJK-k eta bai JKIGLk diote kargu publikodunek "arduraldi osoa eta eskusiboa"ren printzipioa errespetatu behar dutela haien zereginak betetzerakoan, horixe baita Administrazio Publikoaren eta haren mendeko erakundeen eraginkortasuna bermatzeko bide egokiena; izan ere, aldi berean jarduera ekonomiko pribatu bat gauzatzeak –edozein jarduera profesional, merkataritzako jarduera edo industria-jarduera– zeregin publikoetan arreta galtzea eragin baitezake eta, horrela, kargudunaren inplikazioa gutxitu, errendimendua murriztu eta balio publikoa eratzeko egiten den ekarpenaren kalitatea txikitu baitaiteke.

8.- Baina interesdunaren kasua desberdina da: bere asmoa ez da jarduera ekonomiko batean aritzea – jarduera profesional, merkataritzako jarduera edo industria-jarduera batean–, baizik eta denboran luzatuko ez den hautaketa-prozesu batean parte hartzea (aldi baterako lanpostuak betetzeko lan-poltsa baten eraketan, alegia); eta hori, lehen esan dugun bezala, Konstituzioak ematen duen oinarritzko eskubide bat erabiltzearen erakusgarria izango litzateke. JKIGLk kargu publikodunei espresuki ematen badie baimena "norberaren edo familiaren

ondarea administratze"ko (14.1a art.), ez dirudi arrazoizkoa denik pentsatzea motibo gutxiago dagoela Konstituzioak aitortutako eskubide bat –komunitate politiko bateko kide gisa haien ondare zibikoaren parte dena– egikaritzea onartzeko. Herritar guztiek dutenez eskubidea kargu eta enplegu publikoak eskuratzeko, eta eskubide hori ordenamendu juridikoaren maila gorenean dagoenez, pentsatzekoa da administrazio publikoen hautaketa-prozesuetan parte hartzeko eskubidea herritar guztien ondare pertsonalaren barruan sartzen dela, ondare hori pertsonaren ondasun eta eskubideen multzo bezala hartuta.

10.- Interes-gatazka gertatzeko aukerari dagokionez, lehenik eta behin gogorarazi behar da EJKren 11.2 artikulua araberako kasu honetan sortzen dela interes-gatazka: "kargu publikodun eta parekatuek beren postu publikoaren interesekin batera norberaren interes pribatuak, zuzeneko senideen interesak edo hirugarren pertsonekin partekatutakoak agertzen diren kontuekin zerikusia duten erabakietan esku hartzean". Antzekoa adierazten da JKIGLren 9. artikuluan; hau da, interes-gatazka izango dela "lege honek obligatutako subjektuek parte hartu behar dutenean interes orokorra edo beren eginkizunari dagokion interes publikoa eta norberaren interes pribatuak edo hirugarren pertsonekin partekatutakoak edo zuzeneko senideek dituztenak aldi berean biltzen dituzten gaiekin lotutako erabakietan, lege honetan ezarritako eran".

11.- Bi testuak irakurrita erraz ondoriozta daiteke biek diotela interes-gatazka sortzen dela kargu publikodunak "erabakietan esku hartzen dutenean" (EJK) edo "parte hartu behar dutenean (...) erabakietan" (JKIGL), betiere honelako gaiekin lotuta: aldi berean interes orokorrak (betetzen den postuari dagozkionak) eta interes pribatuak (norberarenak, senideenak edo hirugarren pertsonenak) biltzen direnean. Gatazka sortzeko, beraz, ezinbestekoa da honako bi baldintza hauek gertatzea:

a) Kargu publikodunak erabaki batean esku hartzea.

b) Erabaki hori interes publikoaren eta interes pribatuaren arteko talka gertatzen den gai bati buruzkoa izatea.

12.- Kasu honetan, interes-gatazka bat sortzeko behar den aurreneko baldintza falta da, nabarmen: kargu publikodunak zuzenean esku-hartzea aldi berean interes publiko eta pribatuak biltzen dituzten gaiekin zerikusia duten "erabakietan".

13.- Hain zuzen ere, interesduna (...) Zuzendaritzako titularra da, eta zuzendaritza hori Eusko Jaurlaritzaren (...) Sailean dago organikoki kokatua. Kontsultagai dugun hautaketa-prozesua, berriz, (...)rentzako lan-poltsa batekin lotuta dago, eta administrazio publiko horrek ez du zerikusirik kontsultagileak betetzen duen kargu publikoa atxikita dagoen sailarekin. Ildo berean, kalifikazio-epaimahaian IVAPeko ordezkari batek parte hartzeak eta parte-hartze hori euskara-proba egiteko bakar-bakarrik izateak ez du urratzen lehen egindako baieztapena, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea Eusko Jaurlaritzaren Herri Administrazio eta Justizia Sailari atxikitako erakunde autonomo bat baita. Disoziazio organiko garbia dago interesdunak betetzen duen kargu publikoaren eta parte hartu nahi lukeen hautaketa-prozesuak izapidetu

eta ebazteko organoaren artean, eta horrek agerian jartzen du interesdunak ez daukala eragin eta ahalmenik (...)en lan-poltsaren deialdi publikoa kudeatu behar duten administrazio-organo eta pertsonengan.

14.- Hortaz, bistakoa da aztergai dugun kasu honetan ez dauzkagula interes-gatazka bat gertatzeko beharrezkoak diren baldintza faktikoak, interesdunak, kargu publikodun gisa dagozkion zereginak betetzeko garaian, ez duelako inoiz ere esku hartu beharko, ez zuzenean eta ez zeharka, berak parte hartu nahi duen hautaketa-prozesua izapidetu eta ebaztearekin zerikusia duen erabakietan.

15.- Aztergai dugun kasuan legezko bateraezintasunik edo interes-gatazkarik ez dagoela argituta –inpartzialtasun- eta objektibotasun-printzipioei ere ez zaiela kalterik egiten adierazteko bidea ere ematen digu horrek–, beste gauza bat aztertu behar dugu orain: ea kontsultagileak parte hartu nahi duen hautaketa-prozesuan parte hartuta urratu egiten diren integritateari dagozkion jokaera eta portaerak. JKIGLk hauxe hartzen du integritatetzat: “kargu publikodunek eta parekatutakoek atxikimendu sistematiko eta iraunkorra izatea honako printzipio hauei: onestasanari, inpartzialtasunari, objektibotasunari eta esparru juridikoarekiko eta pertsona guztiekiko errespetuari” (5.1 art.). EJK-k, berriz, honela definitzen du integritatea: “alde batetik, kargu publikodunek eta parekatutakoek honako hauei atxikimendu sistematiko eta iraunkorra izatea da: onestasan-, inpartzialtasun-, objektibotasun-, gardentasun-printzipioei, esparru juridikoaren errespetuari eta, zer diren gorabehera, ingurune publiko horretan esku hartzen duten edo harekin harremana duten pertsona guztiei; bestetik, beren eskumeneko gaien kudeaketan erantzukizun-parametroen arabera jokatzeari” (4.1.1 puntua).

16.- EJKn, integritatearen balioa "faboritismo-"susmorik eragin gabe jarduteko beharrari hertsiki lotuta agertzen da; gainera, kode horrek agintzen du ez dela erabili behar "postu instituzionala edo karguaren ondoriozko pribilegioak zuzenean edo zeharka abantailak lortzeko norberarentzat, hala nola abantailak edo desabantailak lortzeko edozein pertsona edo erakunderentzat", eta ez dela eraginik izan behar norberaren agindupeko kargudun edo enplegatu publikoengan, interes publikotik aldenarazi eta "hietetatik zuzenean edo zeharka etekina atera dezaten beraientzat edo beste batzuentzat" (6.1, 6.2 eta 6.3 puntuak).

17.- Gure iritziz, aztergai dugun kasuan ez dago integritate-printzipioaren urraketarik ere, kontsulta eragin duen portaera ez delako kokatzen kargu publikodunek haien zereginak betetzearen esparruan –eta hain zuzen ere esparru horretan gerta daitezke faboritismo-susmoak edo kargu publikodunei legez emandako ahalmenak faltsutzea interes orokorretik aldentu eta norberaren edo hirugarren baten interes partikularren alde jokatzeko–. Interesdunak kontsultan aipatzen dituen hautaketa-prozesuetan parte hartzen badu, ez du zuzendari gisa parte hartuko, modu partikularrean baizik, Konstituzioak herritar guztiei modu berdinean aitortzen dien eskubide bat baliatuz.

18.- Postu instituzionalaz edo karguaren ondoriozko pribilegioez baliatu eta zuzenean edo zeharka norberarentzat abantailak lortzeko arriskuari dagokionez, gogorarazi beharra dago

kontsultagileak betetzen duen karguak ezin duela eragin parte hartu nahi duen hautaketa-prozesuaren garapenean, ez organikoki eta ez materialki. Gainontzean, integritatearen balioak gidatzen du kargu publikodunek haien zereginetan jarduteko modua. Eta, kasu honetan, esan bezala, oinarrizko eskubide batez baliatuz gauzatu nahi den esku-hartze partikular baten aurrean gaude.

19.- Esku artean daukagun kasuak EJKren beste printzipio bati ere eragin diezaioke; eredugarritasunaren printzipioari, hain zuzen ere. Kodeak hauxe dio eredugarritasunaz, 5.2.6 puntuan: "Kargu publikodun eta parekatuak, bereziki gobernu- edo erakunde-egituretan postu nagusiren bat betetzen badu, erakundearen ispilua dira, herritarrei bezala erakunde publiko horretan diharduten gainerako pertsonen ere erakundearen irudia itzultzen diena, eta, horregatik, ez du ezer egin behar edo egin gabe utzi behar horrek kalte egiten badio, txikiena izanda ere, Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorra eta Instituzionalaren ospe, duintasun eta irudi instituzionalari, herritarrek sistema instituzionalean duten konfiantza ez gutxitzeko".

20.- EJK-k eredugarritasunaren printzipioaren esparruan agintzen eta debekatzen dituen jokabideak (15. puntua) kargu publikodunak bere funtzioak betetzerakoan duen portaerari ere badagokio, salbu eta dagokigun kasuan eraginik ez duen 5. puntuan xedatutakoa; alabaina, aurretik adierazi den moduan, hori ez da kontsulta honen xedea. Baina kargu publikoaren titularrek izan beharreko portaerei dagokienez, badaude haien kargua betetzearekin printzipioz zuzenean lotuta ez dauden portaerei eragiten dieten debekuak ere; honako hauek hain zuzen ere:

- a) Kargu organikoak zein kudeaketa-karguak betetzea fundazio, elkarte nahiz bestelako erakundeetan, litekeena baldin bada haien helburuak eta funtzioen xede diren interes publikoak aurkakoak izatea edota interesen arteko gatazka sor badaiteke.
- b) Zuzenean zein zeharka nolabaiteko ordainsari edo konpentsazio ekonomikoa dakarten irratiko hizketaldietan edo telebistako eztabaidetan parte hartzea.
- c) Edozein hedabidetako eztabaida eta gogoeta-prozesuetan edo ekitaldi publikoetan parte hartzea gobernuaren berezko jarreratik aldentzen den jarrera agertuz, salbu eta garrantzirik gabeko gaiak edo iritzi pertsonalak badira eta, horrenbestez, gobernuaren politikarekin zerikusirik ez dutela adierazten bada.
- d) Gobernuaren edo goragoko kargu publikodunaren baimenik gabe hedabideetan parte hartzea, eduki neutralei buruzko elkarrizketa zein erreportajeetan izan ezik.
- e) Betetzen duten karguaren ondorioz liburuetan, aldizkarietan, egunkarietan eta beste edozein hedabidetan ekarpenak egiteagatik ordainketak onartzea, baldin eta ekarpen horiek funtzioak betetzeari lotuta badaude.

Ilkus daitekeenez, EJK-k eredugarritasunaren printzipioaren esparruan berariaz debeketzen dituen jokabideen zerrendan ez dago langileak hautatzeko prozesuetan parte hartzearena. Are gehiago, ez da ikusten EJK-k zehatz-mehatz ezartzen dituen debeku horietako bakar batek ere parte-hartze horri eragin diezaiokeenik. Kontsultagai dugun jokaera ezin da zuzenean edo analogikoki sartu kodeak galarazten dituen jokabideen katalogoan, transkribatu dugun katalogo horretan, alegia.

21.- Bikaintasun-balioari dagokionez, haxe dio EJKren 4.1.2 puntuak: “bikaintasun-balioak berekin dakar inplikatzeta eta etengabe ahalegintzea beti hobetzeko, eta, horren ondorioz, herritarren eskakizunak guztiz betetzeko erabaki publikoetan eta ematen diren zerbitzu publikoetan, eraginkortasunez jokatzuz eta bat etorraraziz erakundean lan egiten duten pertsonak helburuetan, hala nola teknologiei eta prozesuei dagokienez”.

EJK-k, 7. puntuan, bikaintasuna dela-eta agintzen dituen portaera eta jokabideak kargua betetzearekin daude lotuta beste behin ere; hau da, kargua betetzeko garaian inplikazio handiagoa izateko, etengabeko ahalegina egiteko eta kalitatea hobetzeko daude pentsatuta.

22.- 7. puntuko 5 ataletan, kargu publikodunek erakutsi beharreko jarrera eta portaera positiboak ezartzen dira. Hain zuzen ere, honelakoak aipatzen dira: “bete beharko dituzte”, “izan behar ditu xede nagusi”, “izango dituzte helburu”, “garatu beharko dituzte” eta “konpromisoa hartuko dute”. Baina ez dira aipatzen zein diren bikaintasunarekin bateraezinez diren jarduerak. Eta, jakina, ez da inolaz ere esaten hautaketa-prozesu batean parte hartzea bateraezina denik kargu publikodunei haien jardunean eskatzen zaien bikaintasunarekin.

23.- Hala ere, gerta liteke aztergai dugun kasu honetan balio hori kaltetuta geratzea, izan ere hala gertatuko baita kontsultagileak denboran luzatuko den ahalegina egin behar bada izena eman duen hautaketa-prozesuan parte hartzeko prestakuntza jasotzeko eta ikasteko eta, horrez gain, horrek galarazi egiten badio bere kargu publikoa EJKren 7. puntuko 1. atalak eskatzen dion bezala betetzea; hau da, “konpromiso handiz” eta “beti ahaleginduz (...) etengabe hobetzeko”. Ildo beretik, gogoan izan beharra dago besteak beste oinarrizko helburu hau dutela kargu publikodunentzat indarrean dagoen bateraezintasunen araubideak ezartzen dituzten jarraibide etikoek eta arau juridikoek: ahalegina egitea kargu publikodunek betetzen duten erantzukizun publikoarekin lotuta dauden zereginak osorik eta bestelako interesen interferentziarik gabe betetzeko.

24.- Esandako guztitik ateratzen den ondorioa da kontsultagileak, funtzio eta kargu publikoak betetzeko konstituzio-eskubidea betetzen ari dela, esleituta dituen zeregin publikoei behar besteko arretarik jarriko ez balie, eta, ondorioz, betetzen duen kargu publikoan duen inplikazioa gutxitzen bada eta karguak eskatzen dizkion betebeharrak eta obligazioak intentsitate gutxiagoz betetzen baditu —hautaketa-prozesuetan ebaluatu beharko dituen materiak prestatu beharri lotutako distrakzioengatik edo prozesuetako hautaketa-probetara joan behar izategatik—, gerta daitekeela bikaintasunari lotutako jokabide-arauak urratzea, eta, oro

har, kargu publikodunek eginkizunak "konpromiso handiz" eta "beti ahaleginduz" betetzeko obligazioaren balio eta printzipioekin lotutako jokabide-arauak ere urratzea.

Hori guztia aintzat hartuta, hauxe da EPB honek aho batez hartutako

ERABAKIA:

Lehenengoa.- Interesdunak kontsultan aipatzen duen hautaketa-prozesuan parte hartuz gero, ez dira urratzen EAEko sektore publikoko kargudunei aplikatu beharreko "arduraldi oso eta eskusibo"aren printzipioa eta bateraezintasunen araubidea, hautaketa-prozesu batean parte hartzea ez delako ekonomia-, merkataritza- edo industria-jarduera bat gauzatzea, baizik eta Konstituzioaren 23.2 artikulua ematen duen oinarriko eskubideaz baliatzea; hau da, kargu eta funtzio publikoak betetzea.

Bigarrena.- Kontsultagileak bere ohiko zereginak betetzen dituen administrazio publikoa ez den beste administrazio batek deitu duenez parte hartu nahi duen hautaketa-prozesua, ez dago interes-gatazkarik; errotik baztertuta geratzen da aukera hori.

Hirugarrena.- Gainera, zintzotasun, eredugarritasun eta bikaintasunaren balio, printzipio eta jokabideak ere ez dira urratzen interesdunak kontsultan aipatzen duen hautaketa-prozesuan parte hartuta.

Laugarrena.- Kontsultagileak, funtzio eta kargu publikoak betetzeko konstituzio-eskubidea betetzen ari dela, esleituta dituen zeregin publikoei behar besteko arretarik jarriko ez balie, eta, ondorioz, betetzen duen kargu publikoan duen inplikazioa gutxitzen bada eta karguak eskatzen dizkion betebeharrak eta obligazioak intentsitate gutxiagoz betetzen baditu — hautaketa-prozesuetan ebaluatu beharko dituen materialak prestatu beharri lotutako interferentziengatik edo prozesuetako hautaketa-probetara joan behar izateagatik—, gerta daiteke bikaintasunari lotutako jokabide-arauak urratzea, eta, oro har, kargu publikodunek eginkizunak "konpromiso handiz" eta "beti ahaleginduz" betetzeko obligazioaren balio eta printzipioekin lotutako jokabide-arauak ere urratzea. Ondorioz, bere karguko zereginak ardura handiz bete ditzala gomendatzen diogu interesdunari, eta, arreta handia jar dezala kargurako izendatua izan zenetik egiaztatu dituen dedikazio, errendimendu eta eraginkortasunaren estandarrak jaitsi ez daitezen.



Etika Publikorako Batzordea

Comisión de Ética Pública

Josu Iñaki Erkoreka Gervasio
Etika Publikorako Batzordeko burua

Vitoria-Gasteiz, 2016ko maiatzaren 11.